

## MU berdintasun plana garatu duen lehenengo unibertsitatea EAEn

2009/06/05

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana garatu du. Izan ere, orain, ekintza plana ari da lantzen. Beraz, Mondragon Unibertsitatea da EAeko lehen goi-mailako zentroa Berdintasun Plana abian jartzeko. Euren esanetan, "oso garrantzitsua da berdintasunean hezteko Unibertsitatean prestatzen ari garen gizon-emakumeak, gure enpresetako eta kooperatibetako buru izango direlako".

Ilido horretan, proiektua abian jartzeko, Berdintasun Taldea eratu dute. Taldea Enpresa Zientzietako bederatzi lagunek osatu dute eta beraiek gainbegiratzen dute prozesu guztia. Taldeko koordinatzailea Eunate Elio da, eta, bere esanetan, ekimenaren faseak hauexek izan dira: "Hasteko, egoeraren diagnosia egin dugu. Horretarako, aldagai kuantitatiboak eta kualitatiboak aztertu ditugu, hau da, nola ulertzen duten berdintasuna langileek eta ikasleek. Jarraian, emaitzak aztertu eta hobetu beharreko arloak zehaztu ditugu ekintza planean. Azkenik, prozesuaren hirugarren fasean, berdintasunerako neurriak ezarriko ditugu".

### Parte-hartze handia

Mondragon Unibertsitatearen Enpresa Zientzietako Fakultatean, langileen % 50ak hartu du parte prozesuan. Eunate Eliok azpimarratu duen bezala "parte hartzea handia izan da eta era askotara gauzatu da: batzuk berdintasun taldean egon dira, beste batzuk eztabaida taldeetan aritu dira, eta azkenik aurkezpenetan-eta egon direnak ere badira"

2008ko amaieran, diagnosia egin eta ekintza-plana zehaztu zen. Diagnostikoan, hobetu beharreko lau arlo daude eta ekintza planeko neurriak aipatutako lau arloetan oinarritzen dira. Hona hemen arloak: berdintasunari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzea, emakumea kudeaketa-organoetan egotea sustatzea eta hizkuntza ez-sexista erabiltzea.

Horrela, zentroak 2009-2011 Ekintza Plana diseinatu eta arlo bakoitzarentzako neurriak ezartzen hasiko da. Ezarri beharreko ekintzen artean, nabarmentzekoak dira: langileak eta ikasleak genero berdintasunean prestatzea, emakumeek kooperatibetan duten parte hartzea ikertzea eta hizkuntza ez-sexistaren erabilera sustatzea gelan eta ikasmaterialean.

Zentroak proiektuan parte hartzearen zergatien artean, Eunate Eliok honakoak azpimarratu ditu: "Batetik, Enpresa Zientzien Fakultateak harreman estua duelako enpresa munduarekin; bestetik, fakultatean zein genero-egoera zegoen jakin nahi genuelako eta, azkenik, Enpresa Zientzien Fakultatean enpresetako langile eta buru izango direnak prestatzen ari garelako. Ezinbestekoa dugu berdintasunean hezteko gure enpresetako eta kooperatibetako buru izango direnak".

